



pashmina gorria

Emma T.

*Nire pashmina gorria,
babesa, aterpea, zapia;
gorrotoaren aurka geriza,
neguan udaberria.*

*Istorio hau,
benetako gertakarietan oinarriturik egon arren,
fikziozko kontakizuna da haseratik amaieraraino.*

2012ko apirilaren 4.

Udaberria da Swat-en.

Leihora gerturatu eta belaze hezeak ikus ditzaket, belusezko tapizen moduan mendi oinetaraino luze. Egun gutxian kolorez bete da Mingora, bide bazterretan loreak ernetu dira; larrosak, bitxiloreak, urreliliak, tulipak, Brisarak emeki laztantzen ditu ibai bazterrak eta aurpegian haizea sentitzea gustatzen zait; besoak zuhaitz-adarren moduan zabaldu, lasterka egin auzora heldu arte. Udaberriak askatasun usaina du, piskanaka luzatzen doazen egunen argia. Aisha eta biok korrika egiten dugu eskolarako bidea, aldian aldian loreak hartzeko makurtuaz. Kolorez jantzitako soinekoa dirudi Mingorak: ederra da gure hiria.

Gunbad Maira kalean behera egin dugu ahizpa eta biok. Ama unibertsitateko irakasle lana uztera behartu zutenetik bakarrik joaten gara eskolara eta bidean erosketak egiten ditugu Abasin merkatuan. Gaurkoan dilistak, arroza, *naan*-opilak eta ahuntz haragia. Bezperan aitagorri emandako diruarekin moldatu gara eta Hamid-ek *gulab jamun* gozoak eman dizkigu opari. Gizon jatorra da Hamid. Edozer behar izanez gero berari eskatzeko esan digu gaur ere.

Maite dut eskolara joatea, baina *Maulana* Shah Dauran-ak ediktua kaleratu zuenetik emakume eskolak isten ari dira. Gurean ez da halakorik gertatu, asko aldatu dira ikasgaiak ordea. Jada ez digute literatura eta aritmetikarik irakasten, Koran-aren pasarteekin pasa ohi dugu goiza.

Irakurketa ostean, Komal eta Yasminarekin egin dugu bazkaria. Datorren astean Islamabad-era doazela esan digute eta ez dugula jada elkar ikusiko. Komal eta Yasminaren aitagorri tapizen denda ireki du hiriburuan eta bertara doaz bizitzera.

Gogoko ditut haien etxeko tapizak; urdin, gorritzeta eta urre kolorekoak. Swat bailarako belazeen antzera estaltzen dituzte geletako zoruak, belusezko zelaiak, leihoetara arrimuan. Lagunak agurtu ditugu eta zorte ona opa diogu elkarri. Ibai ertzean jasotako harri biribila oparitu dit Yasminak eta nik trukean, erdi negarrez, goizean bildutako loreak.

Eskolatik itzulian Green Chowk bidegurutzea saihesten ahalegindu gara. *Maulana* Shah Dauran-ak dantza debekatu zuenetik, hainbat hilketa izan dira Mingoran. Azkena Shabana dantzaria tirokatu dute debekuari muzin egiteagatik eta Green Chowk-en omen datza bere gorpuak beste hainbatekin batera, guztioi erakusgai.

Jamia mezkitara heltzear, bizardun mehar bat ikusi dut guri begira. Txinalekin hondar lehorra astinduz urrats bakoitzean, *kurta* iluna soinean zuela eta *dhoti*-a gerrian. Izua sentitu dut bere begirada nigan pausatu denean, dardarka nabaritu gorputza.

“*Hil egingo zaituztet*” bota du gizonak ahopeka. Bapateko oihua irten zaio Aishari eta eskua oratu diot sendo; “*lasai, ez dio gugatik, mugikorrez ari da*”. Ahizpa apur bat baretu dela iruditu zait. Eta halere, esango nuke, nik neuk ere ez dudala nire erantzuna erabat sinestu.

Oheratu aurretik aitak sufi poemak errezitatu dizkigu eta musu ematera makurtu denean begiak malkotan zituela iruditu zait. Aita negarrez ikusteak min ematen dit.

“*Hil egingo zaituztet*”, “*Hil egingo zaituztet*”. Esaldiak mailuaren antzera kolpatzen nau oraindik. Gizonaren irudia ikusten dut behin eta berriz, haren hitzak etengabe nire barnean talka. Gaur ezin izan dut loak hartu eta ilun amaigabea hasi aurretiko egun haiek oroitu ditut esna.

Talib-ak eskualdea hartu zuenetik asko aldatu da gure herria.

* * * * *

2012ko, maiatzaren 7a.

Ohean nengoela entzun dut hegazkinen hotsa.

Saidu Sharif aireportua dago Swat ibaiaren bestaldean eta maiz entzuten dugu abioi-burrunda, baina gaurkoan bestelakoa izan da. Gerrako hegazkinak ziren, hiruzpalau segidan eta gugandik ez hain gertu, beste pare bat.

“*Gerran al gaude, aita?*”

Isilik begiratu nau eta besoen artean estutu. Ama negarrez da alboan.

“*Armada etorri da hirira, Saima. Talib-aren aurka datoz. Bata bezain zitalak dira besteak. Hemendik aurrera adi ibili beharra dago biziraungo badugu...*”.

Hegazkinen hotsak urrundu direnean isiltasunak estali du gaua.

Ilunetan, oherako bidea egin dut berriz. Aishak lo darrai eta nik berarekin egon nahi nuke bere ametsetan igerian. Gerrako hegazkinik ez den beste mundu horretan lasterka.

2012ko ekainaren 21a.

Gaur nire urtebetetze eguna da eta aitak pashmina gorria oparitu dit.

“Zer da, aita? Zer da?” hasi naiz urduri oihuka afalostean, aitak Peshawar-etik ekarritako fardela erakutsi didanean. Paperezko bilgarria erretiratu eta oihal leuna laztandu dut, gorri-gorria, gereziondoen fruitua edota Swat ibai ertzean zeruak egun sargorietan hartzen duen kolorea. Gustuko dut pashmina gorria, alai da, uda usaina du. Eskolara pashmina gorriarekin joateko irrika sartu zait.

“Kontuz ibili behar duzue hirian, Saima,... militarrek azaldu direnetik edozein unetan gerta litezke tiroketak. Pashminarekin estali adatsak eta eskolan irakasleak esandakoa egin. Gogorra da hau guztia, laztana, baina pasako da”.

Ahizpa negarrez ari da eta eskua oratu diot sendo.

Pashmina gorria jantzi eta ispiluan behatu dut neure burua. Babesean sentitu naiz. Gorriak indarra eman dit.

* * * * *

2012ko abuztuaren 20a.

Gure amak idazteko esaten dit.

Hitzen bidez marrazteko inguruan ikusten dudana.

Hitzak itsasoan uhinak dira, elurretan urratsak, haizetan hostoak.

Gure amak sentitzen dudana hizkuntzaren bidez adierazteko doaia dudala esaten du. Aishak koloreekin marrazkiak egiten dituen bezala, nik hitzen bidez deskribatzen ditudala irudiak, jasotzen gertaerak. Islatzen dut zeru amaigabea, itsasoaren urdina, lurraren talka. Orri gainetan sortzear dauden munduak idazten ditut nik.

Batzuetan, ordea, idazteari uzten diot. Abionetak, tiroak eta leherkari-hotsa hurbilean entzuten ditudanean ez dut idazteko gogorik izaten. Beldurrak isilarazten nau.

Orduan ere, gure amak idazteko esaten dit.

Eta nik idatzi egiten dut idazteak min ematen didan guztia.

2012ko irailaren 6a.

Urrez jantzitako hiria da Mingora.

Udan gari-soroak beilegi eta lur idorra, azken egunotako euriteekin heze ageri dira. Laster udazkena etorriko da eta hasi du egunak lehenago iluntzen. Iaz garai honetan Asmar mendietara joan ginen piknik-ean, baina aurten bestelakoa izango da iraila. Leihora gerturatu eta paisaiari begira pasatzen ditut igandeak.

Eskolara joan gara gaur.

Hamid etorri zaigu bila, ez baitago baimendua neskak kalean bakarrik ibiltzea. Pashmina gorria jantzi dut eta Aishak laranja-kolorekoa. Abasin merkatura lagundu gaitu Hamid-ek eta bertan erosketak egin ditugu lehenik; *naan*-opilak, arroza, bildotsa eta *gulab jamun* gozoak. Gero, eskolarainoko bidean, behin eta berriz errepikatu digu kontuz ibiltzeko, ez baitago ongi ikusia eskolara joatea eta erosketen aitzakian itxurak egin behar ditugu ezinbestean. Eskola inguruko eraikin batean agurtu dugu Hamid eta lasterka ezkutuan egin dugu ikasgeletarako bidea.

Sei izan gara gaur eskolan. Azkenaldian ikasle askok utzi dio joateari. Irakasleak ere ez dira beti etortzen eta azaltzen direnean burka jantzita egiten dute. Guk ere hala egin beharko genukela esaten du Fatimak, koloretako zapien ordezt burka ilunekin estali buru eta gorputz guztia. Berak eta Bushra-k bezala.

Jada ez ditugu gure hezitzaileen aurpegiak eta izenak ezagutzen. Koran-a irakurtzen dugu goizean zehar eta tartean tiroketaren bat atzematen bada, satora bidaltzen gaituzte. Beldurra pasatzen dugu eskolan eta Aisha dardarka sumatzen dudanean eskua oratzen diot sendo. Gaur bezala.

Etxera gentozela Jamia mezkita ingurutik pasa gara Hamid eta hirurok.

Bizardun multzoa ikusi dugu atarian, txinalak, *kurta* ilunak eta *dhoti*-ak gerrian. Begirada zurrinak pausatu dituzte Aisha eta nigan, dardarka hasi gara biok Hamid-en atzean.

“*Hil egingo zaituztet*”, “*Hil egingo zaituztet*”. Esaldia oroitu dut eta mailuaren antzera kolpatu nau.

Gaur ere ez dut loak hartzerik izan.

2012ko abenduaren 5a.

*Zuria urrelilia,
lorea zelai erdia;
bide estuan aurrera argia,
eskuan harribitxia.*

*Horia baita garia,
sua eta eguzkia;
eskolarako amak josia
soineko xarmangarria.*

*Berdea itxaropena,
bizitzarako kemena;
odolak dakar hondamendia,
bakea da garaipena.*

*Urdina Swat-en zerua,
emaidazu zure eskua;
sortu dezagun gure bidea
iritsi zaigu ordua.*

*Nire pashmina gorria,
babesa, aterpea, zapia;
gorrotoaren aurka geriza,
neguan udaberria.*

Ahizpa eta biok denbora asko ematen dugu etxean bakarrik. Noizean behin joaten gara eskolara, Hamid-ek laguntzen gaitu ezkutuan. Aspaldian armada eta talibanen arteko borroka etengabea da eta gurasoak beldur dira ez ote diguten bidean eraso egingo.

Kanpoan bonba eta tiro hotsa den bitartean, Aisha eta biok jolas egiten dugu koloreekin. Zapi gorriak, horiak, urdinak, berdeak hedatzen ditugu salako zoruan eta lasterka ibiltzen gara haien gainean; zelaian egingo bagenu bezala da. Nik olerkiak idazten ditut eta ahizpak doinua jartzen die, dantzari. Askatasuna sentitzen dugu koloreen babesean; ametsetan ariko bagina bezala da.

Gaur amets egin dut eskolan debekatu duten guztia eta amets ederra izan da.

2012ko abenduaren 12a.

Elurrak estali du Swat bailara.

Leihotik izaren antzera hedatzen ikusi dut, eguzkitan distira. Lasterka egin nahi nuke tapiz zurian, atzera begiratu eta neure oinatzak ikusi hitzak orrian bezala. Hotz egiten du ordea eta kalean bakarrik ibiltzea debekatu digute. Laster irribarrea ere galaraziko digutela pentsatzen dut batzuetan eta horregatik, irri egiteko moduak asmatzera egiten dut jolas, ispiluan aurpegi seriosa dudala barnean poza nola sentitu. Baina ez zait ateratzen. Irudikatu egiten dut zoriona besterik gabe, beste garai bateko kontua balitz bezala.

Gaur Hamid etorri da etxeraino gure bila eta alboan gintuela merkatuan erosketak egin ditu; *naan-opilak*, oilaskoa, fruitu lehorrak eta *gulab jamun* gozoak. Ez da ohikoa gu bezalako bi neska kalean ikustea eta goitik behera begiratzeko gaituzte gizonak. Nire pashmina gorriak aztoratzen ditu eta Aisharen ile mataza beltzaranak. Koloreak ez daude ongi ikusita jada Mingoran eta aldiz, guk koloreei eusten diegu arnasa bezala. Horrek desberdintzen gaitu beste emakume guztiengandik.

Eskolan azken eguna dela esan digute gaur. Irakasleak bertara joan garen gutxioi esan digu, hemendik aurrera etxean gelditzeko eta Koran-a irakurtzeko zerbait ikasi nahi badugu. Aishak negar egin du eta Mahtab, Bushra eta hirurok isilik entzun dugu irakaslearen esana. Jolastokira irten gara gero, azken aldiz eskolan abestera.

Orduan gertatu da.

Multzoan agertu dira eta fusilekin seinalatu gaituzte. Makurtzera egin dut, ihesi ikasgelara sartu eta lurrian etzan naiz berehalakoan. Baina tiro hotsa entzun da patioan eta Aisharen oihua.

Elur gainean orbain gorria zabaldu da gero, gutxinaka. Pashminaren oihalarekin nahasterainoko gorria. Begiak itxi aurretik Hamid-en eskuak iruditu zaizkit, ahizparen gorpua lurretik altxatzen, tantaka odoletan.

2013ko maiatzaren 4a.

Udaberria euritsua da Londres-en.

Ospitaleko leihotik ikus dezaket, gelako horma urdin argiekin kontrastean, zero hodeitsua eta euria. Leihoan ildoak marrazten ditu urak, zerua etengabe malkotan ariko balitz bezala eta ni begira egoten naiz ohetik. Atertu arte begira.

Armadaren babesean egin dugu Mingoratik Ingalaterrarainoko bidaia. Ebakuntza egin ondoren medikuek erabat sendatuko naizela diote, laster joango naizela eskolara. Baina nik etxera itzuli nahi dut. Hau ez da nire hiria edota nik ez dut hala sentitzen eta inork ez daki noiz amaituko den borroka Pakistan-en.

Mingorarekin egiten dut amets gauero. Ametsetan leihora gerturatu eta belaze hezeak ikus ditzaket, belusezko tapizen moduan mendi oinetaraino luze. Kolorez betea Mingora; bide bazterretan larrosak, bitxiloreak, urreliliak, tulipak, Aisha eta biok korrika egiten dugu eskolarako bidea eta aldian aldian loreak hartzeko makurtzen gara. Kolorez jantzitako lurra: ederra da gure hiria.

Etorkizunak askatasun usaina du oraindik ere nire ametsetako Mingoran.

Eta nik idatzi egiten dut amesten dudan guztia.